

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Lizarrako kultur etxeak Donejakue Bideko kultur eta hizkuntza aniztasunaren inguruko erakusketa hartuko du larunbat honatik aurrera

Nafarroako Gobernuak antolatuta, erromesei bereziki zuzendua dago

Viernes, 17 de agosto de 2012

Lizarrako kultur etxeak "Donejakue Bideko kultur eta hizkuntza aniztasuna" erakusketa hartuko du abuztuak 18 eta irailak 2 artean. Bideko kultura eta hizkuntzen inguruko datu, mapa, bitxikeria eta hausnarketak jasotzen ditu.

Nafarroako Gobernuak antolatu du erakusketa. Bisitari eta erromesak sentsibilizatu

nahi ditu Donejakue Bideko kultur aniztasuna eta eleaniztasunaren inguruan, bai zeharkatzen dituen herrialdeena bai eta berau zeharkatzen duten pertsonena ere. Honela, Europako hizkuntza aniztasuna eman nahi da ezagutzera, baita euren sorrera eta kultur eta hizkuntza ezberdinen arteko harreman historikoa ere. Azken finean, kultur eta hizkuntza aniztasuna (hizkuntza gutxituak barne) Europako nortasunaren berezko osagarria dela nabarmendu nahi da.

Erakusketak aurkezpen bideo bat eta gai honen inguruan bisitariak duten ezaguera neurtzeko joko bat (eskuragarri [proiektuaren web gunean](#)) ditu.

Erakusketa bisitatzen duten pertsonak Donejakue Bideari buruzko hitzegi bat jasoko dute, oinarrizkoak diren 45 hitzekin, hamaika hizkuntzatan. Bisitarien eskura jarri da, era berean, Toti Martínez de Lezearen kontakizun bat, bost hizkuntzatan (alemana, gaztelania, euskara, galegoa eta ingelesa). Erakusketa honako orduetan egongo da irekita: asteartea eta larunbata artean, 18.30 eta 20.30 artean eta larunbata, igande eta jai egunetan, 12ak eta 14ak artean.

Europako sei herrialdeen arteko elkarlana

Donejakue Bidea partekatzen duten sei herrialdeen arteko elkarlanaren emaitza da "Donejakue Bideko kultur eta hizkuntza aniztasuna" erakusketa. Ekimena Galiziako Gobernuak sustatu du Europako proiektu baten barnean. Nafarroaren aldetik Euskarabideak parte



hartzen du. Gainera, Aragoik, Bretainiak (Frantzia), Kiel-ek (Alemania) eta Kataluinak parte hartzen dute. Erakusketa ibiltaria da. Aurretik Iruñan, Orreagan, Gares-en, Compostelako Donejakuen (Kiel) eta Zangozan